

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure funtsezko jarduera ekoizpena izango da. Bereziki, garraio publikoko ibilgailuetan alerta-botoiak diseinatzea, fabrikatzea eta instalatzea dira jarduera nagusiak. Bestalde, arazoak konpontzeari dagokionez euskarri teknikoko sistema eraginkor bat garatu behar dugu, arazo teknikoak, gailuetako akatsak azkar konponduko dituen.

Horretaz gain, web orria eta sare sozialak erabiliko ditugu gure produktuaren salmentak bultzatzeko. Halaber, liburuxka eta bideo ulerterrazak ere sortuko ditugu produktua azaltzeko eta jendea kontzientziatzeko.

Gure proiektua eraginkorragoa izan dadin, zeregin batzuk kanpoko enpresek egingo dituzte. Enpresa espezializatu bat arduratuko da botoien mantenuaz, behar bezala funtzionatzen dutela garantizatzen. Gainera, lokala egoera onean mantenduko dituen garbiketa-zerbitzua izango dugu. Azkenik, beste enpresa bat arduratuko da autobusetan botoiak jartzeaz, integrazio egokia eta eraginkorra ziurtatuz.